

KANALAK

Gure enpresarekin hasteko, paperak produktuaren informazioarekin, web orrialdearekin eta kontaktuko telefono batekin banatuko ditugu Bilbotik eta zenbait herritik. Taldekide guztiak egongo gara telefonoaren atzean zalantzak konpontzeko, informazioa emateko edo eskariak jasotzeko.

1.- Komunikazio kanalak: Web orrialdearen bidez, bezeroak haien komentarioak edo proposamenak ipintzeko gunea egongo da. Enpresako telefonoa izango dugu eta guk pertsonalki erantzungo ditugu bezeroen galderak, zalantzak... Gainera, Marieneako emakumeak ematen dituzten hitzaldietan, gutako batek egongo da bertan informazioa aurrez aurre bezeroei emateko.



2.- Banaketa kanalak: Etxeetara bidaliko dugu produktua, gure enpresaren langileak haien autoekin. Enpresa aurrera joan ahala eta zenbat eta ezagunagoa izan, gure salmenta eta banaketa eremua handiagoa izango da, baina enpresarekin hasteko, Bizkaira mugatuko gara.

3.- Salmenta kanalak: Interneten bidez (gure web orrian), gure telefonora deitzen edo Marienea hitzaldietan zuzenean erosi ahal dituzte. Aurreko puntuan aipatu dugun bezala, hasieran produktuaren salmenta Bizkaiko eremura mugatuko da, eta ondo badoa, eremua handitzen joango gara.



FASEAK:

1.- Pertzepzioa: Informazio paperen bidez publizitatea egingo dugu

2.- Ebaluazioa: Gure balioen bidez bezeroak konbentzitu ditugu produktua erosteko

3.- Salmenta: Produktua momentuan edo modu errepikarian ordaintzeko posibilitatea izango dute.

4.- Entrega: Produktua etxean bertan jasoko dute

5.- Salmenta ondoren: Urte bateko garantia izango du eta telefonoaren edo web orriaren bidez gurekin kontaktatzeko aukera izango dute.



Gure kanalak zuzenak izango dira, enpresaren hasieran behintzat, ez ditugulako bitartekaririk izango publizitatea, zerbitzuak... egiteko.